

## BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

646

*EBAZPENA, 2026ko urtarrilaren 27koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaritzarena, zeinaren bidez «+Ecnos Euskadi (Sindicato de Técnicos de Euskadi)» elkarte sindikala «Sindicato Nacional de Técnicos Tecnos» elkartetik bereizteari buruzko agiriak gordailutzen eta argitara ematen baitira (Gordailuaren kodea: 76/1/00004).*

Ikusi ondoren María Aranzazu Juanes Ramirok Sindikatu eta Enpresa Erakundeen Estatutuak Gordailutzeko Bulego Publikoan aurkeztutako espedientea, «+Ecnos Euskadi (Sindicato de Técnicos de Euskadi)» elkarte sindikala «Sindicato Nacional de Técnicos Tecnos» elkartetik bereizteko agiriak gordailutzeari buruzkoa, ebazpen hau ematen da:

### AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2026ko urtarrilaren 12an, «+Ecnos Euskadi (Sindicato de Técnicos de Euskadi)» elkarte sindikala «Sindicato Nacional de Técnicos Tecnos» elkartetik bereizteari buruzko dokumentazioa gordailutzea eskatzen duen dokumentazioa aurkeztu zen, 2025eko abenduaren 17an Autonomiako Batzar Orokor Arruntean erabakitakoaren arabera.

Bigarrena.– Aurkeztutako dokumentazioa bat dator Sindikatu- eta enpresa-erakundeen estatutuak gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoarekin.

Hirugarrena.– Lurralde-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa izango da. Eremu funtzionala, aldiz, haren estatutuetan aurreikusitakoa.

Egitate horiei zuzenbideko oinarri hauek aplikatu behar zaizkie:

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Sindikatu- eta enpresa-erakundeen estatutuak gordailutzeko eskumena organo honi ematen dio Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuak, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, 13.m) artikuluan.

Bigarrena.– Administrazio-prozedura honetan aplikagarri den funtsezko araudia Askatasun Sindikalari buruzko abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoan eta Sindikatu- eta enpresa-erakundeen estatutuak gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretuan jasota dago.

Hirugarrena.– Gordailutzeko aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, zuzenbidezkoa eta, ondorioz, bidezkoa da «+Ecnos Euskadi (Sindicato de Técnicos de Euskadi)» elkarte sindikala «Sindicato Nacional de Técnicos Tecnos» elkartetik bereizteari buruzko agiriak gordailutzea, eta horren berri ematea.

Aipaturiko oinarriak eta oro har aplikatzekoak diren xedapenak aztertu ondoren, honako hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– «+Ecnos Euskadi (Sindicato de Técnicos de Euskadi)» elkarte sindikala «Sindicato Nacional de Técnicos Tecnos» elkartetik bereizteari buruzko dokumentazioa gordailutzeko agintzea (gordailuaren kodea: 76/1/00004).

Bigarrena.– Gordailutze hori EHAAn argitaratu dadin agintzea, Sindikatu- eta enpresa-erakundeen estatutuak gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretuaren 13. artikuluan ezarritako moduan.

Hirugarrena.– Eman den egunaren hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak ebazpen honek.

Laugarrena.– Edozein interesdunek aztertu ahal izango du gordailututako agiria, baita kopia eskatu ere. Agiria Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salaren aurrean aurkaratu ahal izango da, Lan arloko Jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legean (2011ko urriaren 11ko BOE) xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urtarrilaren 27a.

Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,  
MARÍA VICTORIA PORTUGAL LLORENTE.